


Kulturaren Euskal Behatokia



JARDUERA-PLANA

2013ko EKITALDIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

JARDUERA-PLANA

KULTURAREN EUSKAL BEHATOKIA

2013ko EKITALDIA



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEAK	4
1.1. Finantzaketa eta sustapen ekonomikoa	4
1.2. Joera berriak eta ingurune berriak	5
1.3. Sektorearen egituraketa	5
2. INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA	6
2.1. Behatokiak egindako estatistikak	6
2.2. Beste organo batzuekin koordinatutako eragiketak	8
2.3. Kulturaren esparru estatistikoaren garapena	8
3. KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK	9
3.1. Emaizen zabalkundea	9
3.2. Behatokiaren harremanak	9



AURKEZPENA

Ikasketan eta jakintzaren sorkuntzan diharduten erakundeek bide luzea behar dute, lan jarraitua, beren egitekoa fruitua ematen has dadin. Kulturaren Euskal Behatokiak (OVC-KEB) sortu zeneko zazpigarren urteari ekin dio 2013an, eta, tarte horretan, proiektuari buruz hausnartu, hura diseinatu eta aurkezteko hastapeneko urratsetatik bigarren fase batera igaro da, non bere oinarri estatistikoa finkatu duen eta, ondoren, bere jarduna dibertsifikatu duen azterlan estrategikoak landuz. Urte hauetako lanari esker, KEBek eduki ugaria eta askotarikoa du sektoreari eskaintzeko.

Aurten, azterlan kualitatiboen katalogoa zabalduko du, gaurkotasuneko gaiekin batera –kulturari ezarritako BEZa, diseinuaren sektorea EAEn edota nazioartekotzea– sektore indartsu eta trinkoago bati eustea ahalbidetuko duen auzi estrukturalagoak landuz.

Esparru estatistikoan, **Arteei eta Kultura Industriei** nahiz **Finantzaketari eta Gastu Publikoari** buruzko urte birik behingo estatistika-eragiketen erritmoarekin jarraitzeaz gain (biek ere hirugarren edizioa dute), helburu gisa ezarri da EAEko kulturaren sektorearen unean uneko egoerari buruzko informazioa eskainiko duten gailuak gehitzea. Horrenbestez, oinarrizko estatistikaren erritmo geldoa eta garai hauetan beharrezkoa den erantzuteko arintasuna eta azkartasuna uztartu nahi dira.

Komunikazio-politikari dagokionez, KEBek ohiko bideak mantentzen ditu: webgunea bere lanaren edukiontzi nagusi gisa, bildumetako argitalpenak eta Kulturkaria hilabetekaria.

2013an, begiraden, ikuspegien, analisirako gaien eta planteamendu metodologikoen uztardurak azterlan berrien saldo bat ekarriko du emaitza gisa, eta KEBek espero du gure herriarentzat –egungo egoera gorabehera– funtsezkoa den sektore batentzat elikagai aberatsa izan daitezen.



1. IKERKETA, HAUSNARKETA ETA KONTRASTEAK

2010ean abiatutako izaera kualitatiboko azterlan eta txosten estrategikoen ildoak eremu berrietara hedatuko da urte honetan zehar. Ikerketen bidez, garatzeko aukerak erakusten dituzten eta behatokiaren helburuei begira egokitzen jotzen diren auzi eta gaietan sakondu nahi da, eta gaur egungo egoera kultural, sozial edo ekonomikoarekin zerikusia dutelako interesgarriak izan daitezkeen gaien analisiarekin jarraitu.

Azterlanen katalogoak hiru ikuspegi batzen ditu: kulturaren finantzaketa eta sustapena; joera eta ingurune berriak detektatu; eta sektorearen egituraketa. Edonola ere, KEBek zabalik uzten du euskal errealitate kulturala ezagutzeko premiei arintasunez erantzungo dieten eta lehentasunezko ikerketa-ildoak aberastuko dituzten beste analisi batzuei ekiteko aukera..

1.1. Finantzaketa eta sustapen ekonomikoa

Kultura-industriaren nazioartekotze-ereduei buruzko azterketa konparatiboa.

Nazioartekotzea beharrezkoa da barne-merkatua mugatua duen eta horrek hedapena eragozten dion kultura-industria bat egonkortzeko eta hazteko. Analisi honetan, antzeko kultura-inguruneetako ereduak eta horien nazioartekotze-politiken arrakasta aztertuko dira, euskal kultura-industriari aplikagarriak izan dakizkikeen gomendioak proposatzeko asmoz.

Kulturan enpresa-arloari lagun egitea. Arrakasta izan duten kasuen analisia eta horien zenbait alderdi euskal kulturaren sektorean aplikatzeko proposamena.

Enpresa kulturalen errealitatea beste sektore batzuenaz bestelakoa da, horren eskaintza-eskarien merkatua berezia delako. Horregatik, laguntza espezifiko eta espezializatua behar du. Horri dagokionez, politika propioak orienta ditzaketen ereduak aztertuko dira.

BEZa igotzearen eragina EAEko kultura-sektore ezberdinetan.

BEZa %8tik %21era igotzea zuzeneko ondorioak izaten ari da, eta izaten jarraituko du, kultura-jardueran eta -kontsumoan. Jada izan dituen ondorioak aztertu eta epe ertain eta luzean izan ditzakeen ondorio ekonomikoak nahiz sektorearen egituraketaren gainekoak aurreikusiko dituen ikerketa egingo da.

1.2. Joera berriak eta ingurune berriak

Diseinuaren sektorearen eskaintza Euskadin.

Diseinuaren sektorea EAEko ekonomia sortzailearen zatitzat hartu behar da. Txosten honetan, industria horren balio kulturala eta garatzeko dituen aukerak aztertuko dira.

1.3. Sektorearen egituraketa

Kultura- eta sorkuntza-sektoreen bigarren mailako egitura profesionalen eta enpresa-arlokoen estrategia taxutu eta definitzea.

Azterlanaren lehen helburua da EAEko kultura-sektoreen bigarren mailako egitura profesionalen eta enpresa-arlokoen ezaugarrien, dimentsioaren eta egoeraren mapa egitea, sektorearen egituraketan duten eginkizuna eta garatu diren estrategiak zehaztuz. Behin dauden egitura ezberdinak, horien funtzionamendua eta duten pisua zehazturik, Administrazioarekiko harremana sustatzeko, lankidetzaren eremuak ezartzeko eta sinergie probetxu ateratzeko proposamenak egingo dira.

Solaskidetza eta kontzertazioa kultura-sektorearekin.

Administrazio publikoen kultura-sektorearekiko partaidetza-, solaskidetza- eta kontzertazio-ereduei buruzko azterketa konparatiboa, kasu arrakastatsuen eta jardunbide egokien azterketatik abiatuta. EAEko errealtatea eta euskal kultura-sektorearena kontuan hartuta, jarduteko aukeren eta aplikatu daitezkeen ereduaren inguruko proposamen bat egingo da, Administrazioaren eta kultura-sektorearen artean solaskidetza naturala sustatzeko helburuaz.

2.

INFORMAZIOA KUDEATZEKO SISTEMA

KEBen muina informazioa kudeatzeko sistema da. Izan ere, kulturaren sektorean izan den hutsune historiko bat betetzen du eta euskal errealitatea gero eta sakonagoa ezagutu ahal izateko informazioa ematen du. KEBek sustatutako eragiketa estatistikoak elikatzen dituzten EAEko kultura-eragileekin hainbat urtez elkarlanean jardun ondoren, une honetan EAEko kulturaren esparru publiko eta pribatuaren jarduerari, enpleguari eta egoera ekonomikoari buruzko segida finkatuak ditugu dagoeneko.

Nabarmendu behar da estatistika-enbor horretatik bi proiektu sortu direla 2013an, eragiketei alde batetik analisisan sakontasuna eta, bestetik, arintasuna gehitzen dizkietenak. Zehazki, sektore publikoko erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazioen analisia eta arteen eta kultura-industrien luzetarako analisia dira.

2.1. Behatokiak egindako estatistikak

2012ko finantzaketa eta gastu publikoa kulturean.

2013an, *Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturean* estatistika-azterketaren hirugarren ediziorako landa-lanari ekin zaio; azterketa hori da, hain zuzen, EAEko administrazio publiko guztiak kulturean egiten ari diren ekarpen ekonomikoari eta inbertsioari buruzko informazioa biltzen duen iturri bakarra. Analisisaren interesa haren azterketa-eremuaren hedaduran, bildutako informazioaren xehean eta aplikatutako gastuaren kontsolidazioko metodologian datza; guztira 300 bat administrazio-erakunde –hiru administrazio-mailatakoak–, erakunde autonomo, sozietate publiko eta fundazio aztertu dira. Hirugarren edizio honek 2012ko datuak biltzen ditu, eta 2008az geroztik administrazio publikoek kulturarekiko izan duten konpromisoari buruzko jokabidearen bilakaera ezagutzeko aukera emango du.

Erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen azterketa.

Finantzaketa eta Gastu Publikoa Kulturaren estatistika-lanak erakunde autonomoen, sozietate publikoen eta fundazioen aurrekontuei buruzko informazio xehea barne hartzen du. Erakunde horien profila askotarikoa da, bai beren espezializazioari dagokionez bai administrazioen parte-hartze mailari dagokionez. Erakunde talde garrantzitsu horren analisiak argitasuna emango dio kulturaren sektore publikoaren administrazio, lurralde eta sektorekako erretratuari.

Arteen eta kultura-industrien luzetarako azterketa.

Arteei eta Kultura Industriei buruzko estatistika-k EAEko kultura-sektoreen egoera bi urtez behin aztertzeko aukera ematen du. Kultura-sektoreen dinamika gero eta bizkorragoei buruzko informazioa erregularitasunez eta eguneratuta eskuratu ahal izateko, eragileen lagin estrategiko bat diseinatuko da, eta horri luzetarako azterketa bat aplikatuko zaio, sektoreen jardura-mailari eta egoera ekonomikoari buruzko aldizkako datuak edukitzeko.

Euskadiko Kulturaren oinarritzko adierazleen aplikazioa.

Arteei eta Kultura Industriei buruzko estatistika-ren 2009ko edizioan landutako Oinarritzko Adierazleak erreferentzia gisa hartuta, estatistikaren azken edizioko (2011) datuak aztertzeko adierazle egokienak birdefinituko dira. EAEko errealitate kulturalari sektoreko eta zeharkako begirada bat emanez definituko dira adierazleak, kulturaren osasun-egoerari buruzko analisi orokor bat egin ahal izateko, interesekoa den sektore, esparru eta ikuspegi bakoitzaren bereizgarriak aintzat hartuz.

EAEko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko estatistika.

Estatistika hori izan zen KEBek abian jarri zuen lehenengoetakoa (2007-2008). Gaur egungo gizartean ohiturak eta kontsumoak oso azkar aldatzen direla-eta, azterlan honen hurrengo edizioetan kontsumo- eta joera-aldaketen analisisan sakondu ahal izateko ikerketa diseinatuko da.



2.2. Beste organo batzuekin koordinatutako eragiketak

EAEko kultura-enpresen eta kultura-enpleguaren inguruko azterlana.

2013an, EAEko kultura-enpresei eta kultura-enpleguari buruzko hirugarren txostena egingo da, KEBek sortzen dituen estatistikez bestelako informazio-iturri batzuk erabiliz.

Informazioaren gizartea, familiak eta kultura.

Eustatek familiei dagokienez gizartearen informazioari buruz –kultura-edukiei lotutako Interneten erabilera, etxeko ekipamenduak eta erosketak– landutako inkestaren ustiapena eta analisisa egingo da.

Familietako gastua kulturean.

Eustaten datu-bankutik abiatuta, familiek kulturean egiten duten gastua aztertuko da, etxeko eta pertsonako, beste gastu batzuekin alderatuta.

2.3. Kulturaren esparru estatistikoaren garapena

Esparru estatistikoaren erronka berriei buruzko azterketa.

Europar zabaldu diren planteamenduak eta eztabaidak oinarri harturik, estatistika kulturalak garatzeko bide berriak aztertuko dira, kontuan hartuz produkzioan eta kontsumoan eragiten duten aldaketa teknologikoak, politika publikoen norabidea eta Europar Batasunak markatutako “Europe 2020” ildo estrategiko berria.

3.

KOMUNIKAZIOA ETA HARREMANAK

KEBen bereizgarri nagusietako bat da sortzen duen lanari ahalik eta zabalkunde handiena ematea, gardentasuna bultzatuz eta ezagutzari balio erantsia gehituz. Hala, urtez urte Estatistika eta Azterketa Bilduma osatuz doa, beste hainbat material sortzearekin batera: monografikoak, urtekariak, datu-bankuak, buletinak eta abar. Informazio hori guztia KEBen webgunean aurki daiteke.

3.1. Emaizen zabalkundea

KEBen hedabide nagusiak hauek dira:

- **Estatistika eta Azterketa Bilduma.**
- KEBek sortutako emaitza estatistikoen bilduma *Kultura 2012-2013 urtekarian* jasoko da.
- **Kulturkaria** hilabetekaria.
- KEBen jarduera-plana eta memoria.
- **OVC-KEBen webgunea:** Behatokiak sortzen duen informazioaren edukiontzi nagusia da.

3.2. Behatokiaren harremanak

KEBek EAEko kultura-eragileekin duen harremana funtsezkoa da, bai informazioa biltzeko eta bere emaitzak zabaltzeko bai ikerketak eta proiektuak kontrastatzeko. Horrez gain, lehentasunezko informazio-iturria da berriazko azterlanak egiteko.

Bestalde, foro eta topaketa espezializatueta parte hartzen du, eta bere lanak duen aintzatespena egiaztatzen du bilera horietan. Berezi nabarmentzekoa da nazioarteko behatokiaren sarearekin duen harreman irekia, ikerketak partekatzeko aukerak ematen dizkiolako eta bere lana aberasten duelako.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA